

AZALPENAK

Probaren iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

2 GALDERA TEORIKO; guztira, 3 puntu balio dute. Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

2 PROBLEMA; guztira, 4 puntu balio dute. Atal honetan, ikasleak hiru problematik bi egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

TEST MODUKO 10 GALDERA. Hiru edo lau erantzun dituzte aukeran, eta bakarra da zuzena; guztira, 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura ez da inoiz negatiboa izango.

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) Azaldu ekonomia mistoaren eta plangintza zentraleko ekonomiaren ezaugarri nagusiak. (1,5 puntu)
- 2) Azaldu erantzukizun mugatuko sozietatearen ezaugarri nagusiak. (1,5 puntu).

PROBLEMAK:

- 1) Gooik SA enpresak produktu bat ekoizten du hileko kostu hauekin: eraikin baten alokairua, 8.000 €; eskulan finkoa, 7.000 €; beste kostu finkoak, 5.000 €. Unitateko kostu aldakorak 6 €-koak dira. Salneurria/prezioa 10 € da unitateko.
 - a) Adierazi produktu horren errentagarritasun-ataria edo puntu hila. (0,5 puntu)
 - b) Irudikatu grafikoki aurreko egoera. (0,5 puntu)
 - c) Enpresak 10.000 produktu-unitate ekoizten baditu, zein izango da emaitza? (0,5 puntu)
 - d) Enpresaren gehienezko ekoizpen-ahalmena 4.000 unitatekoa bada, zer prezio jarri beharko litzateke galerarik ez izateko? (0,5 puntu)
- 2) Brukom S. Coop. enpresak, mantentze-lan industrialetan diharduenak, datu hauek aurkeztu ditu, egin nahi dituen proiektuetan sortuko diren zenbatespenak eta kutxa-fluxuak islatzeko.

Proiektua	Kutxa-fluxu garbiak (€)				
	Hasierako ordainketa	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea
A	40.000 €	10.000 €	12.000 €	18.000 €	24.894 €
B	70.000 €	30.000 €	40.000 €	5.000 €	3.000 €
C	50.000 €	15.000 €	20.000 €	30.000 €	10.000 €

Taulako inbertsio-proiektuetatik abiatuta eta kontuan hartuta datuak kutxa-fluxu garbietan adierazita daudela:

a) Kalkula ezazu A, B eta C proiektuen Payback edo berreskuratze-epea. Arrazoitu zein den egokiena irizpide horren arabera. (1 puntu)

b) Kalkula ezazu egungo balio eguneratu garbia edo BEGa, eskatutako errentagarritasunaren edo % 10eko deskontu-tasaren arabera. Arrazoitu zein den aldekoena irizpide horren arabera. (1 puntu)

3) A2 enpresak 2024ko abenduaren 31n eurotan baloratutako ondare-elementu hauek aurkeztu zituen bere kontabilitatean:

- Bankuarekin dituen epe laburreko zorrak: 60.000
- Zerbitzu-prestaketengatiko hartzekodunak: 5.000
- Eraikinak: 170.000
- Garraiorako furgoneta: 100.000
- Bezeroak: 44.000
- Izakinak: 40.000
- Eskudirua: 1.600
- Kontu korranteetako dirua: 10.000
- Epe luzeko zorrak kreditu erakundeekin: 200.000
- Hornitzaileekiko zorrak: 30.000
- Makinak: 220.000
- Bezeroak, kobratu beharreko merkataritza-efektuak: 15.000
- Kapital soziala: kalkulatu.
- Legezko erreserba: 30.000
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 77.400

Honako hau eskatzen da:

a) Kapital soziala kalkulatzea. (0,5 puntu)

b) Egoera-balantzea egitea. (0,5 puntu)

c) Kalkulatu eta azaldu ezazu maniobra-funtsa, eta adierazi ezazu grafiko baten bidez (kalkulua: 0,5 puntu eta interpretazioa: 0,5 puntu).

TEST MOTAKO GALDERAK:

1. Langile kopurua bakarrik kontuan hartzen badugu, 249 langile dituen enpresa bat honela sailkatuko da:

- a) Txikia.
- b) Handia.
- c) Ertaina.

2. Kooperatiba batean, zein izango litzateke gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoa?

- a) Kontseilu errektorea.
- b) Administrazio-kontseilua.
- c) Asanblada orokorra.
- d) Batzar orokorra.

3. Zer kontzeptu ekonomikorik deskribatzen du nola erabiltzen diren baliabideak modu egokian ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko?

- a) Eraginkortasuna.
- b) Efizientzia.
- c) Produktibitatea.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

4. Honako zerga hauetatik, zein da zeharkako zerga?

- a) Zerga bereziak.
- b) PFEZa (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga).
- c) BEZa (Balio erantsiaren gaineko zerga).

5. Tasa hauetako zeinek kalkulatzen du biztanleria langabearen eta biztanleria aktiboaren kopuruen arteko zatidura?

- a) Jarduera-tasa.
- b) Okupazio-tasa.
- c) Langabezia-tasa.

6. Zein da merkatu-ikerketa baten helburua?

- a) Enpresek ekoizten dituzten produktuak komertzializatzea.
- b) Merkatuari eta inguruneari buruzko informazioa ematea.
- c) Produktuaren homogeneotasuna frogatzea.

7. Adierazle hauetako zeinek neurtzen ditu herrialde batek denbora-tarte jakin batean sortzen dituen ondasunak eta zerbitzuak?

- a) PNGa. Produktu nazional garbia
- b) BPGa. Barne-produktu gordina.
- c) NPGa. Nazio-produktu gordina.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

8. Zer dira kostu finkoak:

- a) Sortutako kopuruarekiko proportzionalak diren kostuak.
- b) Itopuntuan kostu aldakorak berdintzen dituztenak.
- c) Denbora-tarte jakin batean produkzioak izan duen aldaketarekiko independenteak direnak.

9. Ondasunen ekoizpenean, kostu aldakorak honako hauek dira:

- a) Enpresa batek ekoizten dituen ondasun edo zerbitzuen kopuruaren arabera alda daitezkeen kostuak.
- b) Epe luzearen dauden kostu bakarrak.
- c) Enpresak bere makinak eta instalazioak zaharkituta daudelako egindakoak.

10. Likidezia honako hau da:

- a) Kutxetan eta bankuetan dagoen dirua.
- b) Ondare-elementu bat diru bihurtzeko erraztasuna.
- c) Aktiboaren eta pasiboaren arteko aldea.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.